

«Eskola txikiek adin aniztasuna bultzatzen dute»

Tolosaldea osatzen duten 28 herrietatik hamarrek dute eskola txikia; eskolen errealitatera gerturatu da 'Ataria' Elena Laiz Sasiain eta Mikel Goñi Sagastumeren laguntzarekin // **2-3**

Azoka eguna eta Tolosaldeko Ezti Lehiaketa igandean, Altzon

Olentzerotan Jakin-Minez izango dute hilabete honetan zehar; elikadura burujabetza sustatzen duen Lurtaro proiektuaren aurkezpenarekin hasiko dute egitaraua // **4**

Saralegi eta Regillaga judokak garaile, Espainiakoan

Senior mailan eta kata modalitatean aritu dira tolosarra eta amezketarra; eskualdeko gainerako judoek ezin izan dute aurrera egin borroka modalitatean // **7**



ELKARTASUNA BASAMORTUA ZEHARKATZEN

Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetarako bidean dira eskualdeko boluntarioak; basamortua zeharkatzen ari dira polizien begiradapean eta kilometro ugari egiten ari dira egunero; aurreikuspenen arabera gaur iritsiko dira helmugara, baina basamortuko bidaia ez da erraza izaten ari // **5**

IRATISAZAR ARTOLA

ZOZKETA

Arruti gozotegiaren eskutik Eguberrietako produktuez osatutako otar eder bat zozkatzen dugu.

arruti



Andoain 943 59 37 77

Zozketan parte hartzeko epea
abenduaren 15a, 943 65 56 95 edo
Ataria.eus-en



Txikiak. Goxoak. Gertukoak. Lagunartekoak, familiartekoak ia. Herri txikiak bizirik mantentzeko giltza dira eskola txikiak. Eskualdean 10 herritan irekitzen dituzte ikasturtean zehar eskola horietako ateak. Umeen eta gurasoen joan-etorriek herriari mugimendua ematen diote, bizitza. Inplikazio eta konpromiso handia duten profesionalak daude eskola txikietan, guztiak proiektu horien etorkizuna borobiltzeko lanean.

Agurtzane Belaunzaran

Hezkuntzari loturik dago Elena Laiz Sasiainen (Bilbo, 1958) bizia. Lana baino gehiago da berarentzat eta maistra errebeldetzat du bere burua. Bere amona Errepublikako eskoletako irakaslea izan zen herri txikietan eta bere bidea jarraitu du. Hezkuntzarekin duen harremana hartu-emanekoa da, askotan aipatu du eskerrak ematen dizkiela ikasle guztiei, sekulako bizipoza izan direlako berarentzako, baita bidean topatu dituen lankide eta esperientziei ere, orain bera dena neurri handi batean beraiengatik delako. Hartu, hartu du eta jubilatuta arren hezkuntzari ematen jarraitu du.

Eskola txikiei oso loturik egon da zure ibilbide profesionala.

Zizurkil Herriguneko San Millan eskolan izan naiz irakasle, 1985 urtean hasi nintzen. Aurretik ikastetxe handietan ibilia nintzen. Bost urte egin nituen Zornotzako eskolan eta han lankide oso onak topatu nituen, errebelde samarrak ginen eta hezkuntza ulertzeko eta egiteko modu ezberdina genuen. Tolosaldera etorri nintzenean berri, adin ezberdinetako umeak zeuden eskola txikian, oso ume naturalak topatu nituen, oso errotuak beraien inguruan, familian eta hizkuntzan. Eskolak ematen zien esperientzia baino askoz aberatsagoa zen beraiek zutena. Eta horrek zer pentsatu handia ematen zidan.

Myriam Nemirovsky ezagutzakasko aldatu al zuen hezkuntza ulertzeko modua?

1991. urtean, Tolosaldeko eskola txikietako mintegiko zortzi eskoletako hamar irakasle hasi ginen berarekin formatzen, beste ate bat zabaldu zigun, gure lan egiteko modua guztiz irauliz.

Irakurketa, idazketa eta matematika irakasteko moduak aldatu genituen. Filosofia konstruktibista jarraitzen zuen, bizitzan erreala diren egoeretatik erakustea planteatzen zuen. Benetako ipui-

IRAGARKI LABURRAK

Alokagai

Etxebizitza. Etxebizitza bat alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean kokatua. Altzariak ditu, eta guztiz hornituta dago. Interesatuak deitu dezatela ondorengo telefono zenbakietara: 677 000 005 edo 667 320 911.

«Mundua eskolara ekarri eta eskola mundura atera behar genuen»

ELENA LAIZ SASIAIN IRAKASLE ERRETIRATUA

Eskola handietan, eskola txikian, irakasleen formazioan eta esperientzia berriak eskola txikietan aplikatzen buru-belarri ibilia da



Eskola txikiei oso loturik egon da bere ibilbidea irakasle eta formatzaile bezala. AGURTZANE BELAUNZARAN

nak, errezetak, berriak... irakurtzera pasa ginen eta horrekin mundu berri bat zabaldu zitzaigun. Idazketak ere zentzu batekin

«Oso ume naturalak topatu nituen Tolosaldera etorri nintzenean, oso errotuak»

izan behar zuen, hartzaille batekin, gogoeta sakonak eginez... Mundua eskolara ekarri eta eskola mundura atera behar genuen. **Eskola txikietako irakasleen formazioan buru-belarri aritu zara.**

Irakasle gisa beste esperientzia aberasgarri bat izan da. Nemirovskyekin landutako pedagogian oinarritutako formazioa ematen nien Eskola txikietako irakasleei. Bere jarraitzailea izan naiz.

Umeek hezkuntzakezarrirako erritmoa jarraitzen ez badute larritu egiten gara. Zer aldatu beharko litzateke?

Metodoetan oinarritzearen ondorioa dela esango nuke. Dena dago neurtua, eredu horrek aukera oso txikiak uzten ditu eta helduen ikusteko moduan oinarritzen da. Ikasteak ez du tempo bat eta ume bakoitzak bere erritmoa eta modua du. Asko behatu behar ditugu irakasleak, baina ebaluazio bihurtzen da segituan eta horrekin batera, kalifikazioa. Irakasleok gure buruari egin behar diogu ebaluazioa, egiten duguna ume bakoitzarentzat egokia den ikusteko.

Aldiz behaketa –zure esku hartzerik gabe ahal dala– ikustea, entzutea eta sentitzea da; ikaslea zer egiten ari den ikusi behar da eta hori jaso behar da umea ahalik eta ondoen ezagutzeko eta onartzeko. Francesco Tonucciren tailerretako sistema jarraitzen duten eskoletan horixe egiten dute. Tailerretan gertatzen den guztia idazten da egunero; zein ume egon diren, zertan, nola egon diren... Modu honetan oso datu interesgarriak jasotzen dira.

Francesco Tonucci pedagogoa

aipatu duzu, zein da bere pedagogia proposamena zehazki?

Ume bakoitza dena garatzeko aukera ematen duen eskola defen-

«Nemirovskyekin landutako pedagogian oinarritutako formazioa ematen nien irakasleei»

datzen du Tonuccik. Maila eta irakasgaiak kentzea proposatzen du, tailerren bidez ikasteko aukera bultzatzea. Liburutegia, aroztokia, arte tailerra, mugimendu tailerra eta zientzia laborategien bitartez, irakasleek beren curiositateak, beren beharrak eta gustuko espazioak bilatzea ahalbideratuko duen eskola planteatzen du.

Bere eredua osotasunean jarraitzen duten eskola txiki batzuk daude eskualdean. Munduan zenbat daude?

Zizurkil Herriguneko eta Abaltzisketako eskola, Tonucciren lehenengo seme-alabak direla esan daiteke eta dirudienek bakarrik

dira, 2-12 urte bitarteko ikasleak elkarrekin dauzkagu tailerren bidez ikasiz. Eskola txiki publiko batean horrelako sistema edukitzea oso ederra eta aberatsa da. Publikoak dira eta administrazioaren baiezta jaso dute gainera, horrek erakusten du benetan nahi bada egin daitekeela.

Guztiak eskola txikiak zarete, hala ere.

Ez du zertan eskola txikia izan behar sistema hau martxan jartzeko. Baina, geu hasi ginen, bai.

Administrazioaren baiezta, eskola iraultzeko nahia zuten irakasleak eta gurasoen babes... Baina zer diote irakasleek?

Hasi ginen bi eskolek prozesu ezberdinak pasa genituen, baina Tonuccik bisitatu gintuen batean galdetu zien zer zen eskolatik gehien maite zutena eta irakasleek adin aniztasuna eta tailerrak aipatu zituzten. Guri berriz, askotan galdetzen digute «zergatik ixten da eskola asteburuetan? zergatik hainbeste opor? Utzi giltzak eta guk irekiko dugu eskola eta txukun-txukun utziko dugu».

Badira lau urte irakasle lanetik erretiratu zirela, baina hezkuntzari loturik jarraitzen du zure jardunak. Bokazioa da zure reagero.

Azken bi ikasturteetan protokoloak medio ezin izan dut lanean jardun. Erretiratu berritan Zizurkilan eta Abaltzisketan jarraitu nuen pixka bat lanean, eskolara etorri ziren irakasle berriei idazketako eta irakurketako formazioa ematen. Gaur egun, berriro hasita nago eskola batzuetan saio batzuk ematen. Tarteetan, Tolosako Orixe institutuko ZIGen (Zeregin Ikasketak Gela) boluntario aritu nintzen, desgaitasun intelektualak dituzten 16-20 urteko gazteekin. Bertan lan egiten duen lagun batek eskatu zidan Tonucciren filosofia pixka bat aplikatzeko. Hala, pixka bat aldatzen hasi eta dena aldatu genuen goitik behera!

Etaz eregin zutenen?

Tailerren esperientzia 2-12 urtekoekin genuen eta ez nerabeekin. Umeek nola gozatzen zuten ikustea ikaragarria izan bazen, gazte hauek izan zuten aldaketa latza izan zen. Planteamendu aldaketa rekin autonomia eman genien eta ezagutzen ez genituen artistak azaleratu ziren. Ohartu ginen umeek bizitzen zuten prozesu bera bizitzen zutela. Esango nuke esperientzia honek nire ibilbidea borobildu duela.

Agurtzane Belaunzaran

Euskadiko Eskola Txikien koordinatzaile lanetan ikasitakoak eta hausnartutakoak eskola eta hezkuntza ulertzeko modu berriak eman dizkiote Mikel Goñi Sagastumeri (Amezketako, 1981). Aurrez-aurreko lanera itzuli berri da, herrian irakasle sekula izango ez zela pentsatu bazuen arren, jaioterri eta bizileku duen Amezketako eskolako irakasle da orain, eta ikasitakoak bertatik bertara praktikan jartzeko asmoa du.

Euskadiko Eskola Txikien koordinatzaile izan zara. Zein balorazio egiten duzu?

Bederatzi urte egin ditut bertan eta balorazioa oso positiboa eta aberatsa da. Lehen bi urteetan Elena Laizekin egon nintzen eta eskolara itzultzea erabaki zuenean, umezurtz sentitu nintzen, aitortu behar dut. Bide bat egin beharrean sentitu nintzen. Momentu zaila izan zen, baina orain, denbora pasata, momentu polit bat bezala ikusten dut. Une horretatik aurrera eskola txikietan ematen diren ikuspegi oinarriak berreraiki zirela uste dut. 2015ean berri, hiru probintzietako Eskola Txikien koordinatzaile izatea egokitu zitzaidan.

Eskola txikietan ematen diren ikuspegi oinarriak aipatu dituzu, zeintzuk dira?

Eskola txikien inguruko definizio komun bat osatu genuen; eskola txikiek adin aniztasuna bultzatzen dute, publikoak dira, landa eremuan daude eta ezauzgarri horiei esker lan on bat egiteko aukera ugari dituzte. Adin aniztasuna zabaltzeak aberastasuna dakar eta ikasleak begirada guztien erdigunean jarri nahi izan ditugu. Azken urteetan, metodologian oso enfokatuta geunden eta haurrak bakarka eta kolektiboan nola zeuden ikustea izan da ere helburuetako bat eta eskolen berreraikitze ardatzetako bat.

Francesco Tonucci pedagogo italiarrak eragin zuzena izan du eskola txikien paradigma-aldaketan eta irakasleengan orokorrean. Zuri ere ikuspegi berri bat ireki al dizu?

Nire lan egiteko modua asko aldatu zuen Tonuccik, irakasle bezala beste modu batera ikusten ditut ikasleak orain, baita hezkuntzaren betebeharrak ere. Askotan gure lan moduetan ez dugu asmatu eta ez diogu gure buruari autokritikarik egin. Errazegi esaten dugu ikasle jakin batek ez duela eskola jarraitzen eta ardura berarengan jartzen dugu, hori esatea onartu egiten

«Herriaren nortasunaren eta harremanen sortzaile dira eskola txikiak»

MIKEL GOÑI SAGASTUME IRAKASLEA

Hezkuntzaren atzealdean aritu da amezketarra. Euskadiko Eskola Txikien koordinatzailea izan da bederatzi urtez



Mikel Goñi Amezketako eskolan; eskola txikien koordinatzaile aritu eta gero, bertan ari da irakasle lanetan. A. BELAUNZARAN

zaigu gainera eta gurasoek askotan onartu egiten dute. Baina guk ez diogu begiratu behar dakarren gabeziari, eskola publikoak gara eta umeak ikastera datoz. Agian eskolak aldatu behar du lan egiteko modua.

«Adin aniztasuna bultzatzen dute, publikoak dira, landa eremuan daude eta aukera ugari dituzte»

Hiru lurraldeetako eskola txikiak ez dira berdinak izango, zertan ezberdintzen dira?

Gipuzkoan 26 eskola txiki daude, Bizkaian 21 eta Araban 7. Ez da berdina eskola txikia Albizturren, Turtziozen edo Bastidan. Albizturren euskara da hizkuntza nagusia, Turtziozen berri, gaztelania, eta Bastidaren kasuan ikastola dago bertan eskola txikiaren errealitatea oso ezberdina da. Gipuzkoan bereziki, eskolak oso euskaldunak dira. Bizkaian eta Araban aldiz, errealitate soziolinguistiko ezberdinak dituzte. Gipuzkoan eskolen arteko harreman oso sanoa da eta autonomia maila handia daukate. Araban, gutxi izatearen ondorioz, lanerako oso talde ona dago eta oso motibatuak daude, beraien duten errealitate sozialari ondo erantzuten jakin dute.

Gaur gaurkoz, eskola txiki bat itxi dela jakingo bazenu...

Eskola txikia ixtea katastrofe bat da! Zorionez nik ez dut ezagutu, baina bai kontrakoa; Ezkio-Itsason eskola ireki zuten, egun ia 60 ume daude eta bertakoak dira denak. Eskola batek lagunarteak sortzen ditu eta horrek iraun egiten du. Herri txikietako eskolan 6 urtekoak 10 urtekoekin daude, adin arteketasuna asko irekitzen da eta kideetasun horrek neraberoan irauten duela ikusten dugu. Horrek saretze bat dakar herritarrengan. Herriaren nortasunaren eta harremanen sortzaile dira eskola txikiak. Herri txiki batean bizi den gurasoari, haurra herriko eskolara eramateko eskatuko nioke, kalitatezkoa eta

publikoa den hezkuntza jasoko baitu.

Discinatzetik, pentsatzetik eta formatzetik, ikasleekin aurrez-aurreko lanera etorri zara.

Beti esan izan nuen nire herrian

«Herri txiki batean bizi den gurasoari haurra herriko eskolara eramateko eskatuko nioke»

ez nuela lanik egingo. Baina paradigma aldatetarekin eta lan egiteko moduaren ikuspegi aldaketarekin, nik nahi nuen bezalako maisua izateko, nire herrian aritu behar nuela ohartu nintzen eta ondorioz, Amezketako eskolan

nago irakasle. Umeak ondo eza gutzeko aukera ematen dit eta gutxi gorabehera badakit zer motxila dakarten –denok baitakarkigu motxila–, horri esker jardun hobea diseinatu dezaket.

Ba al duzu erronkaririk asturte berrirako?

Erronka asko ditut, noski, baina, abiadura handian doa dena. Haurrei asko irakurtzea zen nekarraren ideietako bat, baina ohartzen naiz nahi baino gutxiago egiten dudala, egunerokoak jaten gaituelako. Oso garrantzitsua da irakurtzeko gaitasuna garatzea, giltzarria da etorkizunerako, eta horretarako desira da beharrezkoa. Nire ustez desira sortzen laguntzen duen aldagaie-tako bat da haurrei asko irakurtzea, baina nahi baino gutxiago egiten dut.

Nolako litzateke zure eskola ideala?

Eskola toki goxo eta enpatikoa izatea nahiko nuke. Horrek denbora eskatzen du eta ez badugu denbora horretan inbertitzen galdu egingo dugu.

Eskolaren funtzioa soziala nabarmentzen duzu. Ba al daude nahikoa baliabide?

Oraingo lan egiteko moduekin eta eskolak antolatuta dauden estiloan jarraituz, datozkigun arazoan eta errealitateen aniztasun tipoiari erantzun azkar bat emateko irakasle gehiago behar dira. Baina aldi berean pentsatzen dut gakoa ez dela irakasle gehiago jartzeari bakarrik, eskolan bertan aldatzea sistematikoki bat eman behar dugu.

Azken ikasturteetan bizitakoak kanpora begira jarri al ditu eskolak?

Konfinamendu osteko ikasturterako erronka izan da kanpoko espazioak aztertzea eta pedagogikoki nola erabili daitezkeen baloratzeari. Herrietan modu askotako guneak daude eta aberatsa izan da horiek aprobetxatzeko moduak pentsatzea. Leku askotan inflexio puntua izan da herrietako beste toki batzuk ezagutzeko.



zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu



Tenpora taldearen kontzertua
Abenduak 10,
19:30ean,
Lugaritz kultur etxea, Donostia.

Atarikideentzat bi sarrera ditugu



Acunsa Gipuzkoa -
ICG Força Lleida

partida ikusteko
Abenduak 12, 18:00etan,
Donostia Arenan.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Eztiaz gozatutako Azoka Eguna igandean, Altzon

XXV. Olentzerotan Jakin-Minez egitarau sortari ostiralean emango diote hasiera, Lurtaro elkarte berriaren aurkezpenarekin

Eneritz Maiz Etxarri

Oparo iritsi da abendua Altzora. Prest dute XXV. Olentzerotan Jan-Minez, eta altzotarrek zortzi egunetan badute zer ikusia, zer ikasia, zer dastatua, zer entzuna edota zer eresia.

Ostiralean bertan izango dute lehen hitzaldia, eta eskualdera loturiko eta bertako ekoizleei begira sortua den Lurtaro proiektu berria ezagutzeko aukera izango dute. Proiektu bi kide gerturatu-ko dira Altzora, eta Batzarremuñon emango dituzte azalpenak. Larunbatean, herriko txiki-ekienek sukaldari lanetan aritzeko aukera izango dute, eta ekitaldirik handiena igandekoa izango da.

Altzoko V. Azoka izango da, igandean, 10:00etatik 14:00etara. Eguraldiak aterruneren bat ematen badu, plazan egingo dute, gainerakoan, pilotalekua bilakatuko dute azokarako eremu. Era askotako postu ugari izango dira, eta azokaz gain, To-

losaldeko XXIII. Ezti Lehiaketa hartuko du Altzok. Tolosaldeko ezti ekoizleak izango dira, eta lehen hiru sailkatuek Zegaman egingo den Gipuzkoako Ezti Txapelketan parte hartuko dute.

LUOPATIAZ

Hilaren 17an gai serio bat izango dute: ludopatia. Horretarako lehen pertsonan bizitu duen 32 urteko Josu Vianaren testigantza izango dute, Batzarremuñon. Jo-koak bere bizimoduan nola eragin duen, handik libratzeko zer egin behar izan duen eta bidean zer galdu duen kontatuko du.

Bezperan, Aritz Ganboa artzainaren bisita jasoko dute. *Bideak* dokumentala ikusteko aukera izango da, eta ostean, besteak beste, landa eremu bizi bat aldarrikatuko dute. Baina horiez gain, bi egunetan musika izango da Loatzoko ikasleekin eta Esanezinen kantaldiarekin, edota Altzoko Ostaturko Jokin Zavala sukaldariari esker menu eder bat prestatzen ikasiko dute.



Duela bi urte Altzon egin zuten azokan 35 postu izan ziren; irudian horietako bat. JOSU ARTUTXA

XXV. OLENTZEROTAN JAKIN-MINEZ

Hilak 10, ostirala

19:00. Lurtaro elikadura burujabetza bultzatzeko elkartearen aurkezpena izango da bertako bi kideren eskutik, Batzarremuñon kulturagunean.

Hilak 11, larunbata

Arratsaldean. Sukaldaritza ikastaroa haurrentzat. HH eta LHko haurrentzat, Batzarremuñon.

Hilak 12, igandea

10:00-14:00. V. Azoka Eguna. Bertako eta inguruko ekoizleak salgai jarriko dituzte beren produktuak: babarrunak, mondejuak, sagarrak, eztia, ogia eta gozokiak, olioak, taloak, garagardoa, pateak, txerrikiak, ... eta baita landareak, eskulanak, jantziak, bitxiak, liburuak, xaboiak, ukenduak ... ere. Eguraldi onarekin plazan egingo dute, eta txarra bada, frontoian.

10:00-12:30. Tolosaldeko XXIII. Ezti lehiaketa. Ezti gordinak, erlezain berak Tolosaldean ekoiztuak izango dira lehian. Hiru finalistak, Zegaman martxoan ospatzen den Erlezain Eguneko Gipuzkoako Ezti Lehiaketan parte hartuko dute.

Hilak 14, asteartea

18:00. Sukaldaritza tailerra egingo dute Elordi elkarteak. Altzoko Ostaturko arduraduna den Jokin Zavalak zuzenduta, parte hartzaileek hiru plateraz osatutako menua prestatuko dute.

Ondoren. Elkarrekin afalduko dute prestatutako menu hori dastatuz. 15 euro ordaindu beharko da, eta udal-letxean izena emateko azken eguna, ostirala, hilak 10, da.

Hilak 15, asteazkena

18:00. Musika emanaldia izango da Batzarremuñon. Loatzoko musika eskolako musikari gaztetxo eta gazte-ek eskainitako kantu eta musika emanaldiaz gozatzeko aukera izango da.

Hilak 16, osteguna

19:00. *Bideak* dokumentala eta solasaldia izango dira, Batzarremuñon. Artzain baten jatorritik abiatzen da dokumentala, eta gazta bat soinean, nafar mendietan barrena korrika erronka batean murgiltzen da Aritz Ganboa artzaina bere arbasoen herriak lotzeko: Sakanako Arruazu eta

Erronkariko Izaba. Artzaintza ardatz hartuta, landa eremua eta kultura balioan jartzea eta landa eremu bizi bat aldarrikatzen ditu. Dokumentala aurkezten izango dira Mikel Unanua zuzendaria eta Aritz Ganboa bera.

Hilak 17, ostirala

19:00. Ludopatiari buruzko hitzaldia eskainiko du Josu Viana Mujika 32 urteko zumarragarrik, Batzarremuñon. Apustuek eragindako menpekotasuna tarteko, sei urtetan zuloan egon ondoren, bizimodu berriaz gozatzen ari da. Menpekotasunari aurre egin ahala, gizartean arazo honekiko kontzientzia piztu eta ludopatiak erasandakoei laguntzeko erabakia hartu zuen eta, gaur egun, ikastetxeetan prebentzio saioak eskaintzen ditu.

Hilak 18, larunbata

19:30. Esanezinen kantaldia. Altzagarateko lanire Aranzaberen bakar-kako proiektua da. *Aireratz*en bere lehen diskoa aurkeztuko du, Batzarremuñon.

Ondoren. Gaztaina erreteak eskainiko dituzte, plazan.

GABONETAN OPARITU BERTAKOA, OPARITU ATARIA

Oparitu urtebeteko Atariako harpidetza zuk nahi duzunari, eta jaso katilua edo koadernoan doan

Atarikide digitala: 55€. Atarikide harpidea: 83€
(produktuak agortu arte)

Ataria

Lagundu Atarikide sarea zabaltzen

Egin zure erreserba abenduaren 22a baino lehen. 943 65 56 95 / atarikide@ataria.eus

Basamortuaren erdian



**Tindufeko Errefuxiatuen
Kanpalekueetatik**
Irati Saizar Artola
Kazetaria

Eguneko erronka 800 kilometro egin eta Tindufera iristea da. Oraindik zailantza dago lortuko ote dugun edo ez.

Basamortuan jarraitzen dugu, basamortuko errepidean. Azken bi egunetan zenbat kilometro egin ditugun ere ez dakigu eta beste 800 egiteko helburuarekin atera gara. Azken etapa Becharren amaitu genuen. Gure aurreikuspenen arabera kanpoan egin behar genuen lo, aire zabalean, hemen genioen moduan, mila izarretako hotelean. Izan ere, zoragarria da Afrikako zerrua. Baina, nonbait, Aljeriako agintariren batek agindua eman zuen kalean lorik egin ez genezan, eta ikastetxe bat prestatu ziguten guztiontzat. Beraz, koltxoi gainean egin dugu lo.

Nahi baino ordu gutxiago pasata esnatu gara, ordea. Guztion artean hala adostuta, 06:00etan jarri genuen irteera ordua, nahiago genuelako errepidean egun argiz joan, ilunduta baino. Eta 05:30erako prest genuen kafea, taldeko batzuek prestatua. Indarrak hartu eta ibilgailuak ilarran jarrita egin dugu aurrera. Helburua, bakarra: Tindufera iristea.

Gasolindegia batean egin dugu geldialdia, eta ibilgailuei erregaia bota bitartean mokadu bat egiteko aprobe txatu dugu. Eta berehala etorri da bigarren geldialdia. Wilaya batetik bestera pasatze-



ko -wilayak hango probintziak dira- polizia aldatzen dute. Kontatu bezala, bide guztian zehar gurekin dator polizia, eta al daketa egin dute Tindufera sarreran. Mugan gurekin zihorazten poliziak buelta hartu dute, eta polizia talde berri batekin egin dugu aurrera.

Oraindik ziur ez dakigu noiz iritsiko garen Tindufera, ezta errefuxiatuen kanpamentuettara ere. Bagoazela soilik dakigu.



**Tolosako Udalak
babestutako bidaia**



Bidaiaaren informazio eta
irudi guztiak hemen



Senior mailako nesken Tolosa Eskubaloia taldea bigarren denboraldian murgilduta dago. Zazpi jardunaldi jokatuta, laugarren postuan daude, bigarrenarekin puntuetara berdinduta.

Hasitako bidea sendotzen doaz

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF klubeko eskubaloiko arloan emakumezkoen senior taldea jarri zen martxan aurreko denboraldian, eta bigarren honetan proiektua sendotzen doa. «Gure helburua beti izan da nesken taldeen eskailera bat sortzea gazteetatik helduetaraino», esan du Nerea Esnaola taldeko kapitainak. «Jubeniletaraino lortu genuen, baina gero nahiko zaildu zitzaigun senior mailako taldea lortzea, ez genituelako 18 urtez gorako nahiko jokalaria». Aurreko denboraldian sortu zen aukera hori, bai Tolosatik bertatik prest zeudenekin, zein Leitzaran taldetik iritsitako bi jokalaria eta Lasartetik etorritako beste batekin. «Aurreko denboraldian ondo joan zenez, denboraldi honetan taldea mantentzea lortu dugu».

Hamabi jokalaria daude egun taldean, hau da, gutxienezko parte hartu ahal izateko. Kanpotik etorritako hiru jokalaria joan egin dira eta beste hiru ekarri dituzte. Jubenilen laguntza ere izaten ari dira, bai entrenamenduetarako eta baita partidetakoko ere. «Senior taldeetan hori gertatzen da», esan du Esnaolak. «Asmoa da senior mailako jokalaria asko izatea eta taldea osatzeko jubenilen taldeetara jotzea. Nesketan zein mutiletan gertatzen da hori».

Une honetan emakumezko hiru talde daude klubean: kade-teak, jubenilak eta seniorrak. «Infantilen taldea falta zaigu, aurreko urteetan izan duguna. Jokalariak urteak egin ahala mailaz igotzen joaten dira, eta aurretik ez dugu infantil neskarik. Datorren urtera begira hori da gure helburu nagusietako bat», azaldu du Esnaolak.

Nesken artean eskubaloia ez da lehen aukera izaten; «beste kirolekin alderatuta ez gara agian hainbeste nabarmentzen, ez behintzat futbola edo Tolosan arrauna nabarmentzen diren bezala», esan du kapitainak. «Tolosan kirol aukera asko dago eta horrek gehiago zailtzen du aukeraketa». Aitor Garcia taldeko en-



Tolosa Eskubaloia senior taldeko jokalaria eta klubeko ordezkariak. ATARIA

trenatzaileak eta mutilen lehen taldeko jokalaria gaineratu duenez, «mutiletan ere antzeko zerbait gertatzen da. Klubean badaude ideiak eskubaloia jende gehiagorengana iristeko. Saskibaloian, adibidez, udan eta Egu-berrietan campusak egin ohi dituzte, eta aukera ona izan daiteke horrelakoak antolatzea haur gehiago erakartzeko».

Zentzu horretan, eskubaloian eskola dute martxan, infantiletik beherako haurrentzat. «Ostiraletan egiten da, eta egia esan jende asko etortzen da, eta gehienbat neskak dira», esan du Esnaolak. «Orain ari dira euren artean partidak jokatzen, eta poza ematen du neskak ikusteak. Esperantza pixka bat ematen du eta horrek erakusten du gauzak aldatzen ari direla». Hori horrela, espero dute datozen urteetan nesken infantil taldea osatzeko dela.

SAILKAPENEAN GORA BEGIRA

Gipuzkoako lehen mailan dago senior taldea, hau da, maila oinarritzakoan. Aurreko denboraldian Garcia bigarren entrenatzaile izan zen, eta ez zela erraza izan azaldu du: «Taldea berri bat zen, eta askok ez zuten inoiz elkarrekin jokatu. Azkenean, lehen urtea izateko nahiko ondo

aritu ginen, eta sentsazioak oso onak izan ziren». Esnaolak gaineratu duenez, «oso talde gaztea ginen, eta aurkarien artean adin guztietako jokalaria zeuden, eta hori ere beste erronka bat izan zen».

«Gure helburua beti izan da nesken taldeen eskailera bat sortzea, gazteetatik helduetaraino»

**NEREA ESNAOLA
TOLOSA ESKUBALOIKO KAPITAINA**

«Behintzat saiatu nahi dugu azken jardunaldietara lehen postu horietan iristen»

**AITOR GARCIA
ENTRENATZAILEA**

Denboraldi honetan ere taldeak oso gaztea izaten jarraitzen du, 18 eta 20 urte arteko jokalaria baitaude. Zazpi jardunaldi jokatu dituzte, eta une honetan laugarren daude sailkapenean, puntuetan bigarrenarekin berdinduta. Kontuan hartu behar da gainera Eibarko taldearen aurka jokatu behar zuten zortzigarren jardunaldiko partida atzeratu dela. «Oraingoz oso

ondo hasi gara», esan du Garcia. «Partida bat bakarrik galdu dugu eta beste guztiak irabazi egin ditugu. Ez genuen espero horrelako hasiera izatea, hain talde gazte batekin ez delako erraza horrelako maila batean lehiatzea».

Izandako hasiera ikusita, helburua lehen postuetan geratzeko dela gaineratu du entrenatzaileak. Esnaolak dioenez ere, ez zuen espero horrelako hasiera izatea. «Taldea gaztea izanik batzuetan ez dugu partida nahi bezala kudeatzen. Ez dugu nahi dugun bidetik eramaten, baina oraingoz emaitza onak lortu ditugu».

Orain etorriko dira partida erabakigarriak, beraien aurretik sailkapenean dauden hiru taldeen aurka jokatuko dutelako. «Gure maila ematen jarraitzen badugu, eta beste pauso bat emateko aukera badugu, lehen postuetan mantentzeko aukera izango dugu», esan du Esnaolak. «Egiten ari garen lanarekin, eta pixka bat hobetuz, uste dut helburua lortu dezakegula. Kantxa barrutik, jokalaria harro gaude egiten ari garenaz, lortzen ari garenaz, eta egiten ari garen lanak bere fruitua izaten ari dela ikusten dugu».

Hamahiru talde daude ligan, eta lehenengo postuan sailkatzen denak lortzen du goiko mailara, Euskal Ligara, igotzea. Taldearen helburu zehatza ez da lehen postu hori lortzea, baina bai goiko postuetan egotea. «Sinetsi behar dugu lehen postuetan egoteko aukera dugula, eta horren bila egingo dugu lan», esan du Garcia. «Behintzat saiatu nahi dugu azken jardunaldietara lehen postu horietan iristen, eta gero ikusiko dugu aurreko postu hori lortzeko aukerakin egon gaitezkeen». Esnaolak gaineratu duenez, motibatu egiten die goiko postuetan egoteko helburu hori izateak, eta gainera, liga nahiko parekatua dela dio: «Horrek ere tentsioan mantentzen zaitu. Ezin diozu zure aurretik doazenei bakarrik begiratu, atzetik datozen taldeei irabaztea ez da erraza izaten».

BIGARREN DENBORALDIA

Taldean asko nabaritu dute bigarren denboraldia dutela elkarrekin jokatzen, nahiz eta jokalaria berri batzuk iritsi. «Jokatze moduan asko ikusten da hori», esan du Garcia. «Jokoaren hainbat egoera aurrera eramaterakoan nabaritzen da hori. Talde zailagoen aurkako partidak etorriko dira orain, eta hor ere erakutsi behar dugu emandako aurrerapauso hori». Aurreko denboraldian ez zekitela zer aurkari topatzeko zituzten eta denak jubeniletatik igo berritan, kolpe hori jaso behar izan zutela esan du Esnaolak. «Aurretik, Aitorrek dioen moduan, gure artean gehiago ezagutzeaz gain, liga bera ere hobeto ezagutzen genuen, eta bagenekien zer espero genuen talde bakoitzaren aurka jokatzean».

Aurrera begira, Tolosa Eskubaloiko emakumezkoen senior taldea itxaropentsu dago. Ligari begira, goiko postuetan mantentzea dute helburu, eta proiektu bezala, senior taldea bidea urratzen ari da, atzetik datozenentzat erreferente izanez. Klubetik oinarritzako mailak sendotu nahi dituzte, gorako mailak elikatzen joan eta nesken eskubaloia urte askoz eskualdean bere erreferentzia izan dezan.

Munduko Kopako lehen proba 46. postuan amaitu du Rojok

Norvegiako proban parte hartu du iraupen eskiatzaile tolosarrak; Joko Olinpikoetara sailkatzea du helburu

Erredakzioa

Imanol Rojo eskiatzaile tolosarrak 46. postuan amaitu zuen larunbatean Norvegiako Lillehammer herrian ospatutako Munduko Kopako proba. Rojok 34 minutu eta 29 segundoko denbora behar izan zuen skating estilon, 15 kilometroko proba amaitzeko.

Norvegiarrak izan ziren nagusi larunbateko lasterketan eta lehen hiru postuak eskuratu zituzten. Helmugan Simen Hegstad Krueger irabazleak baino bi minutu eta bi segundo gehiago behar izan zituen tolosarrak.

Munduko Kopako lehen proba izan da Lillehammer herrian ospatutakoa eta Alpino-Uzturreko eskiatzaileak hurrengo probetan parte hartzeko asmoa du, Pekingo Olinpiar Jokoetarako sailkapena lortzeko. Horretarako Munduko Kopako sailkapenean lehen 120 postuetan egon beharko du. Urtarrilean jakinaraziko dute behin betiko erabakia eta bien bitartean proba gehiagotan parte hartuko du Rojok.

Aurreko denboraldian, 18. eta 19. postuetan sailkatu zen eskiatzaile tolosarra munduko rankingean eta 2022ko Pekinerako txartela lortuko balu, hirugarren aldia izango luke Joko Olinpikoetan; aurreko bi txandatan Errusian eta Hego Koreako Joko Olinpikoetan aritu izan da.

Espainiako Judo Txapelketan Saralegi eta Regillaga irabazle

Kata modalitatean urrezko domina irabazi du bikoteak senior mailan; borroka modalitatean final laurdenen atarian geratu dira eskualdeko judokak

Jon Miranda Tolosa

Unai Saralegi tolosarra eta Unai Regillaga amezketarra, senior mailan, Espainiako Judo txapelketan geratu dira, kata modalitatean. Urrezko domina eskuratu zuten igande arratsaldean Madril, Gallur udal kirol zentroan. «Hamar urte daramatzat txapelketen mundu honetan eta niretzat amets bat betetzea bezalakoa izan da. Aspaldi aritu nintzen txapelketetan eta lesio bategatik utzi behar izan nuen. Berrir bueltatu, hor goian egon, eta urrea lortzea, niretzako izugarria izan da», esan du Saralegi.

ZORTZI BIKOTE FINALEAN

Kata modalitatean, judoko giltza jakin batzuk irudikatu behar izaten dituzte kirolariek. Epaileek puntuak ematen dituzte mugimenduen arabera eta horrela zehazten da sailkapena. Zortzi bikotek parte hartu zuten igandeko finalean. Printzipioz aurkaririk gogorrena zen Extremadurako bikotea, Munduko txapelketan hirugarren tokian geratu zena, azken orduko lesio bategatik txapelketatik erretiratu ondoren, aukera aprobetxatzea erabaki zuten Tolosako Judo Klubeko kideek. «Gure indar guztiak jarri genituen lehen postua lortzean, aukera ezin hobea baitzen guretzat».

Egindako lanarekin «gustura» geratu direla aipatu du Saralegi. «Txapelketa jokatu zen pabiloia handia zen oso eta gu ez gaude



Regillaga eta Saralegi, igandean, podioan, urrezko dominarekin. ATARIA

horrelakoetara ohitura, toki txikiagoetan aritzen gara normalean. Sentsazioak ezezagunak zitzazkigun. Ondo aritu ginela uste genuen, baina ez genuen erabateko ziurtasunik. Gainera, lehen tokian ateratzea tokatu zitzaigun, Munduko Txapelketan bezala, eta hango esperientzia ona izan ez zenez, beldur ginen. Gure lana bukatuta epaimahaiaren puntua zioa ikusi eta gure lana gustukoa izan zutela frogatu genuenean, lasai geratu ginen. Nahikoa diferentzia atera genien gainerako bikoteei eta bukaerara arte goian mantentzea lortu genuen», aipatu du Saralegi.

2018an hasi ziren elkarrekin, borroka lagun, Saralegi eta Regillaga. «Gure artekoa hasieran gehiago zen irakasle-ikasle harre-

mana, baina urteak pasa ahala, bidaia asko egin ondoren, judoko bikote eta lagun bihurtu gara», aitortu du Saralegi. Udatik hona, ia etenik gabe jardun dute entrenatzen. «Munduko txapelketarako sailkapena lortu genuenean buru-belarri hasi ginen prestatzen. Txapelketa hori bukatu eta segidan etorri dira besteak eta ia ez dugu atsedenik izan. Entrenamenduak gure lanarekin eta ikasketekin uztartu behar izan ditugu eta gogorra izan da. Nekatuta bukatu dugu baina merezi izan du, saria eskuratu dugulako».

Denboraldia bukatutzat eman du bikoteak eta atsedena hartuko du hurrengo hilabeteotan. Espainiako Kopako zirkuitua martxoan aldera hasiko da eta Europako Txapelketa maiatza inguruan. Jo-

muga hori begiz jota dutela aipatu du Saralegi: «Aurten bigarren geratu gara. Txapelketetan zilarrezkoak badiugu, ea orain urrezkoak etortzen hasten diren. Iruditzen zait pausoa eman dugula, eta besteekin batera goian lehiatzeko moduan gaudela».

Munduko Txapelketa 2022ko udazkenean ospatuko da eta hitzordu hori urrutik ikusten dute Saralegi eta Regillaga, dena den sailkapena lortzen saiatuko direla diote. Aurten, 13. postuan amaitu dute Munduko Judo Txapelketa.

ESKUALDEKO GEHIAGO

Tolosako Judo Klubeko Zuriñe Tardio leaburuarrak eta Ruben Lekuona tolosarrak lehen aldia izan dute aurten Espainiako Judo Txapelketan. Borroka modalitatean, senior mailan parte hartu zuten astelehen goizean. Lehenengo txandan aurkari gogorrak egokitu zitzaizkien biei eta ezin izan zuten final laurdenetako langa gainditu.

«Suerte txarra izan dute, aurkaririk gogorrenak egokitu zaizkielako. Rubeni gero Espainiako txapelketan geratu denaren kontra aritzea tokatu zitzaion lehen borrokan, eta Zuriñeri, berriz, bigarren txandan Tokioko Joko Olinpikoetako judoka bat egokitu zitzaion. Ikasteko balio izango die esperientziak eta ziur nago motibazio gehiagorekin lanean jarraituko dutela hemendik aurrera», nabarmen du Saralegi.

Hilberriak eta urteurrenak

atariAn jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Arantza
Eizagirre Altuna



URAK DAKARRENA,
URAK DAROA
ZUK EMANDAKOIA
GUREKIN GERATZEN DA!

ELKARTASUN DENDAKO ZURE LAGUNAK

ZUMARRAGAn, 2021eko abenduaren 8an.



Ramona Tapia
Txapartegi

(Eusebio Larrea-ren alarguna)
Abenduaren 5ean hil zen, 93 urte
zituela.

-Goian Bego-

Seme-alabak: Jose Ramon eta Axun Loidi, Iñaki eta Pili Lazkano, Bakartxo eta Koldo Saez de Egilaz; bilobak: Asier eta Mari-na, Uxue, Eñaut, Manex, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko une hauetan gure alboan egon zareten guztioi.

IKAZTEGIETAN, 2021eko abenduaren 8an



ASTEAZKENA, 2021EKO ABENDUAK 8
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Ballarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketako saridunen berri eman dute

Helduen mailan Iñigo Legorburu Arregik irabazi du lehen saria eta gazteen artean Maddi Etxeberria Barandiaranek; Tolosaldeko gelen artekoan Tolosako Herrikideko 6.A gela izan da garaile

Erredakzioa Zizurkil

Hernandorena kultur elkarteak, Harituz Tolosaldeko bertsozaleen elkargunearekin lankidetzan antolatu du VIII. Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketa, «Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildarra omendu eta bertso-paperean adierazpideari keinu bat egin asmoz».

Harituzeko sei kidek osatu dute epaimahaia eta jasotako lanen kalitatea azpimarratu dute. «Neurri, gai eta estilo oso ezberdinetako lanak jaso dira eta lan benetan zaila izan da maila bakoitzean bi bereiztea», esan dute.

Lan guztiak arretaz irakurri, abestu eta aztertu ostean erabaki dituzte epaimahaikideek sari guztiak.

MODU TELEMATIKOAN

Sari banaketa modu telematikoan egingo dute.

Bertso jartzaile saridunek bi-deoz grabatu dituzte euren bertso sortak eta Hernandorena kultur elkartearen webgunean eta Harituz bertsozale taldearen sare sozialetan argitaratu dira, Euskararen Egunaren ospakizunarekin bat eginez.



Sari banaketa modu telematikoan egingo dute. JON MIRANDA

SARIDUNAK

Helduen maila

Lehen saria. Iñigo Legorburu Arregiren Hitz erdiez, bi hitz bertso sorta. «Sorta osoan erakusten duen oreka eta teknikatik, darabilen umoreagatik eta bertso sortari darion sinesgarritasunagatik».

Bigarren saria. Aner Euzkitzeren *Problema ez zara zu*. «Gaia lantzerakoa garaian darabilen sentsibilitateagatik eta hura erakusketa erabili duen dotoreziagatik. Baita bertsoz bertso mantentzen duen kalitate eta orekatik ere».

Gazteen maila

Lehen saria. Maddi Etxeberria Barandiaranen *Ispilu-azpitan*. «Bertso sortari eman dion egitura originala-

rengatik eta erabili dituen irudien edertasunagatik».

Bigarren saria. Ane Zubiaren *Zer hartu eta zer eman? Harreman*. «Bertsoak osatzeko darabilen teknika zuzenagatik eta gaia lantzeko erabili duen dotoreziagatik».

Gaztetxoan maila

Epaimahaikoak kategoria honetan saririk ez ematea erabaki du, jasotako lanen kopurua eta kalitatea ez direlako behar besteak izan.

Tolosaldeko gelen artekoa

Lehen saria. Tolosako Herrikide ikastetxeko 6.A gela.

Bigarren saria. Bidania-Goiazko Txinkorta eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak.

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Tolosako udal txistulari bandaren kontzertua Sortzez Garbiaren egunagatik, 13:15ean Zerkau-sian. Gonbidatuak: Xabier Zelaia eta Igor Agirre tronpeta jotzaileak eta Ozenki txistulari taldea.

Zinema

Tolosa. *Una familia feliz 2* haurrentzako filma 17:00etan, *El buen patrón* 19:00etan eta *Fantasia* 21:30ean. Guztiak Leidorren.

Erakusketak

Tolosa. Txaro Maraño eta Charo Cimasen erakusketa: *Planeta lorategia*. *Planeta infernua* eta *EMAKU-ME* Artean Aranburu jauregian.

Tolosa. Biniloko disken eta txotxongiloen erakusketa, eta paporezko antzerkiari buruzkoa Topic zentroan.

Tolosa. Mikel Garmendia Uranga, alegiarren pintura erakusketa 3 tabernan.

Berrobi. *Herria* argazki erakusketa udaletxean.

Alkiza. *Hitzak zaindari* erakusketa ibiltaria Fagus Alkiza zentroan.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean (Pasadena eta Ibon Salterain)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. BaDa!

FARMAZIAK

Gaur

AMASA-VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Negu giroa. Egun osoan zehar euri zaparrada mardulak eta ugariak izango ditugu, non egunaren bigarren zatian ekaitzak jo dezakeen eta zaparrada handi samarrak bota, kaz-kabar eta guzti. Haizea ipar-mendebaldetik zakar ibiliko da eta tenperatura ez da 7-8 gradutik pasako. Elurra goizean 800-900 metrotan kokatuko da, baina egunean zehar jaitsi egingo da, arratsaldean 600-700 metrotan kokatuz.

Bihar. Egun euritsua izango dugu. Egun osoan zehar erabat estalirik egongo da eta euria izango dugu. Zaparradak sarri eta mardul botako ditu, litro asko pilatuko zaizkigularik. Ipar-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da eta tenperatura zertxobait igoko da, 9-10 graduan joaz goia. Elur-maila goizean goiz 600 metrotan kokatuko da, baina goiz erditik aurrera nabarmen gora egingo du.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

15,50€
31€
45€
51€

Atarikideek

12€
23€
33€
38€

943 65 56 95

ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez